

MARTA ZELAI ITURRIGARDENEA

C. Zumárraga 7,
Entrada Maestro Icíar
48006 Bilbao
t: 94 679 22 92
m. 645 005 426
info@lataller.com
www.lataller.com

Iturrigardenea BIG MASTER izeneko proposamen handiago batean kokatzen den proiektua da, denborari eta galerari buruzkoa. Norberaren nortasunaren esplorazioa ere bada, artista gisa, zaintza eta dolu garaian.

BIG MASTER proiektuaren lehen zatiak Sokatira izena hartu zuen, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Rekalde Aretoan aurkeztu zen 2018an.

BIG MASTER artelan multzoaren bigarren zatia *Iturrigardenea* da. Doluaren ondorengo denbora aztertzen duen ikerketa plastikoa da, galdutakoaren asimilazio-prozesu baten ondoren gertatzen dena. Pertsona bat, kasu honetan, artista bat, trantze honen ostean, ez da pertsona bera izango. Zelan itzuli mundura, bizitza propiora, obra propiora, besteen zaintzara dena baztertu ondoren?

Prozesu artistikoen presentzia, eraldaketa eta egokitzapenari buruzko ikerketa da, zainketa edo dolua bezalako bizi-esperientzietan. Eragiketa artistiko hau objektuetan eta irudietan geratzen den karga afektiboarekin lan egitean oinarritzen da.

Familiaren legatu prozesuala, materiala eta sinbolikoa eta haren erantzukizunen eta afektuen unibertsoa, *Iturrigardenea* izenburuan laburbildu du artistak, familia-etxearen izenarekin.

Erakusketa, tamaina handiko paper gaineko obra batek osatuko du, artistak La Talleren egindako egonaldi batean grabatu bidez egindakoa, gerora koloretako lapitzekin margotu duena. Azulejuz egindako horma-irudi bat eta artisau-osagai indartsua duen eskultura batek biribilduko dute Zelaiaren proposamen artistikoa.

Marta Zelaia Aranbaltza (1962) Urdulizen jaio zen eta bertan bizi eta lan egiten du. Arte Ederrak ikasi zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Pintura espezialitatean lizentziatu zen 1987an. Urte horretan jaso zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/88 Arte-sorkuntzarako beka. Ertibil '86, Ertibil' 87, 88an. Ohorezko Akzesita jaso zuen Gasteizko Arte Plastikoen VIII. Bienalean eta 1990ean Bizkaiko Artean. Arte tailer askotan parte hartu du, horien artean aipatze-koak dira Hanna Collinsek QUAM93an emandakoa (Montesquiu, Girona) eta 1994an Angel Bados eta Txomin Badiola artistekin Artelekun egindakoa. Momentu horretan erakusketa ugaritan parte hartzen du, jasotako sariekin lotutakoez gain. Sorkuntza artistikoa inoiz alde batera utzi gabe, 2000ko hamarkadatik bere sormena profesionalki, paisajismoaren eremuan zentratu du.

Iturrigardenea abenduaren 20rarte egongo da ikusgai.